

Ugartemendiak ere, emakumezkoen erregional mailan erdilari ibili denak, ezin hobeto bukatu du debordaldia; mailaz igotzea lortu dute eta datorren urtean euskal ligan arituko dira haiek ere.

Areto futbola

Itzulera paregabea izan du areto futboleko nesken taldeak, oraingoan Berastegi Lauburu izena hartuta. Izan ere, Berastegiko futbol zelaia areto futbolean aritzeko balio ez duenez, Ibarrako Lauburu taldearekin partidak Ibarran jokatzeari adostu du nesken taldeak, eta hargatik izen berria.

Lierni Gartziaarena, Ane Urkizu, Alazne Saizar, Olaia Garaiburu, Maialen Gartziaarena, Mireia Barriola, Sara Caminos, Oihane Zubiria, Irati Rekondo eta Naroa Zubiriak osatutako taldeak 3. postuan amaitu zuen liga eta play off-etako finalerdietako lehen partida galduta, kanpoan geratu zen. Aipatu behar da ligako goletzailerik onena Mireia Barriola izan dela.

Onena etortzeko zegoen, hala ere. Apirilaren 29an Ibarran jokaturako Gipuzkoako Kopa irabazi egin baitzuten neskek, aurrena ligan zehar aurkari zuzena izandako Idiazabali irabazi eta gero Anoeta garaituta.

Txirrindularitza

Urteak daramatza Aitor Gartziaarena berastegiarrak bizikleta gainean. Aurten, esate baterako, Bizkaiko Birako 20. edizioan hartuko du parte; eta, ez alferrik, orain arteko edizio guztietan izan da. Ez



Areto Futboleko nesken taldea, Ibarran kopa irabazi berritan.

nolanahiko emaitzekin, gainera. Maiazaren 28 eta 29ko asteburuan Esteponan (Malaga) jokaturako Txirrindularitza Egokituko Espainiako Txapelketan MT 1 mailan hartu zuen parte Euskadiko selekzioarekin eta erlojupekoan brontzezko domina eta errepidean zilarra eskuratuta itzuli zen etxera.

Urriaren 15ean 44 urte beteko di-

tuen txirrindularia Irunen bizi da bere bikotekidearekin eta asteko bi entrenamenduak Irunen eta Tolosaren artean erdibanatzen ditu. Tolosan entrenatzen duenean Berazubiko estadioan edo Alegia eta Altzo aldeko errepideetan entrenatzen du, Emaitz Izagirre eta Asier Mujika entrenatzaile dituela. Gaztetan futbola eta atletismoa ere gustuko zitue-



Aitor Gartziaarena, Espainiako txapelketako podiumean Esteponan, eta Asier Mujika entrenatzailearekin, Berazubini, bizikleta berriaren gainean.



Cambrilseko lasterketan parte hartu zuten txirrindulariak. Axier Matxinea Ordesan, Cotatureroko ur jautzia atzean duela.



la aitortu digu Aitorrek, eta probatu ere probatu zituela; baina 1992az geroztik buru-belarri bizikletari emana bizi da.

Ilusio bereziarekin hartuko du parte aurten Aitorrek uztailearen 15, 16 eta 17an egingo den Bizkaiko Biran, bizikleta zaharra alde batera utzi eta NER Group Ikaztegieta kokatutako enpresa taldearen eskutik eskuratu duen Giant markako bizikleta berriarekin hartuko baitu parte.

Bestalde, txirrindularitza lasterketa herrikoiei dagokienez, aurtengoan ere izan da hainbatetan berastegiaren ordezkartzarik.

Apirilaren 18an Cambrilsen egin zen Canyon Cambrils Park lasterketan, Canyon Escaladei 122 kilometroko zirkuituan, 7 izan ziren berastegiaren kamiseta jantzita parte hartu zuten herritarrik: Iker Saizar (4:41:50), Axier Matxinea (4:41:50), Xabier Mujika (4:41:51), Aritz Mujika (4:42:05), Julen Agirrezabala (4:45:53), Aritz Aranburu (4:45:54) eta Ander Beloki (4:50:19).

Ekainaren 18an, eguraldi hotz eta bustiarekin egin zen 205 kilometroko Quebrantahuesos martxa zikloturistan, berriz, Iker Saizarrek eta Aritz Mujikak hartu zuten parte eta denbora berean amaitu zuten lasterketa (8:03:54).

Uztailearen 2an, Bardeetan egin zen Extreme Bardenas 100 kilometro inguruko mendi bizikletako lasterketan, aldiz, 5 berastegi izan ziren: Iker Saizar (4:27:33), Juan Mari Ugartemendia (4:51:27), Jesus Zubillaga (5:02:48),

Jose Miguel Etxarren (6:42:46) eta Josu Ugartemendia (6:42:47).

Eta, mendi bizikletarekin jarraituz, aurten Axier Matxineak bizikleta gainean burutu duen abentura ere ezin aipatu gabe utzi, mendi bizikletaren munduan sonatua den Mediterraneoetik Atlantikorako Transpirenaica ibilbidea egin baitu, berak bakarrik: guztira 680 kilometro 7 egunetan, Pirinioak alde-nik alde zeharkatuz. Ekainaren 3an ekin zion bideari Gironako Planoles herrian eta ekainaren 9an eman zuen bukatutzat ibilaldia Orreagan.

Bizikletaren mantenimendurako erramintak (olioa, kate puskak...) bizikleta gainean, Transpirenaicari buruzko eskuliburua eta paperezko mapak bizkar zorroan eta GPSa manilerrean. Eguraldiaren iragarpenari adi, egunen amaierarako iragarrita zeuden trumoi-ekaitzak ahal zela saihestea helburu.

Goizeko 6,30ak aldera ekiten zion Axierrek bideari eta 16,00ak aldera, iluna gain hartzen hasterako gelditzen zen.

Elurrik ez ibilbidearen goieneko zatian (2.300 metrora daude pistarik altuenak) eta bere moduan bizikleta gainean zihozzen lagun ale batzuen konpainia izan ezean, gehienez bakarrik. Bidean eza-gutu dituenen artean, Cacereseko gizon bat, Lleidako albergean ezagutu zuena. Hirugarren aldia zuen Transpirenaica egiten, eta hari buruzko blog bat du interneten, aldian-aldian osatzen ari dena.

Esperientzia aparta izan da, Axierrek aitortu digunez. Aspalditik zekarren buruan Transpirenaica egiteko ideia, eta astebete jai hartzeko aukera sortu zaionean, bi aldiz pentsatu gabe, bete egin du asmoa. Bizikletan beti lasterka, lehian ibili izan bada ere, bizikletaz beste era batera gozatzeko modurik ere badela erakutsi dio bere buruari. Hala kontatu digu guri.

Mendi ibilaldia

4 urtez behin Aralarko Adiskideak Elkarteak antolatuta Tolosatik abiatu eta Tolosan amaitzen den XIV Orduko



XIV Orduko Ibilaldian parte hartu zuten hainbat berastegi.

Juanjo

Herriko plaza, 2
ANOETA
Tel.: 943 651 194

JKE B

JAKINTZABIDEKO
KIROLETAKO
BASURDE ELKARTEA
BERASTEGI